

ALKATEAREN AGURRA

Hemen ditugu, berriz ere, herriko festa nagusiak: sanpedroak. Urtea azkar pasatu zaigu, konturatu orduko uda ate joka dago, eta udaldia ondo hasteko, herriko jaiak, San Juan suaz berriztatutako gogoaz, herritarrok ondo baino hobeto ospatzen ditugunak.

Askoren lan isilari esker, egitarau oparoa aurkeztu beharrean nago, eskerrik asko egin duzuen lanagatik. Adin guztiak kontuan hartzea ez da erraza egiten, baina, zorionez, guztiok dugu gure tartetxoa jaiez gozatzeko. Hala espero dut. Prestatu den egitaraua oparoa izateko guztion partaidetza behar dugu, guztiok kalera irtetea eta prestatutakoaz ondo pasatzea.

Zabaldu gaitzen kanpotik gurekin jaiak partekatzerara datozen guztiei, guztion artean egin dezagun Eskoriatza alai eta koloretsua. Esan beharrik ez badago ere, argi eta garbi izan behar dugu guztiok dugula jaiez disfrutatzeko aukera; beraz, erabat bazterten dugu edozein indarkeria mota, eraso sexistak barne.

Jaiak bai errespetoa ere bai.

Gora Eskoriatzako sanpedroak !!!

Quiero presentaros el programa de fiestas que se ha preparado con un trabajo arduo y silencioso por un grupo de voluntarios eskoitzarras. Quiero agradecerles el trabajo realizado, ya que gracias a ellos todos podremos disfrutar de nuestras fiestas.

Ahora está en nuestras manos participar en las mismas y disfrutar. Y, a la hora de disfrutar, tenemos que desterrar cualquier expresión de violencia, incluidas las agresiones sexistas.

Jose Ramon Zubizarreta
Eskoriatzako alkatea

